

450 zenbakia, 2001eko maiatzaren 4a
JARDUN ELKARTEA

Bergarako astekaria

Berrigara



ANGIOZAR

**Abiadura
Handiko
Trena
Bergaran**

Jaione Isazelaiarekin berriketan | Bergara Hiria pilota txapelketa aurkeztu dute

NAZIO ASKE BAT JAIOTZERA DOA

euskal herria



BOZKATU



Euskal Herria



Euskal Herritarrok



Hitzak eta harrikadak

Iñigo Urrutia / Kazetaria

Hauteskunde kanpainaren azken txanpan gaude, ia-ia itota. Azken bi urteok ez dakit nazkagarri ala negargarri izan ote diren, baina nekea nabaritzen da eta, gauzak horrela izanik, poesiari buruz arituko naiz, osasun mentala ez galtzeko asmo duinarekin. Poesiak egia sakonengana helarazten gaitu, eta hitzak eta mezuak zarata hutsak edota harrikadak besterik ez direnean, bertsoen edertasunari munduarekin elkartzeko biderik zintzoena deritzot.

Jose Angel Valente, Rene Chair edota Pedro Salinasen eraikuntza miresgarriek, hitzez hitz, politikatik at zoriez dauden betiko egietara eta galderetara garamatzate. Laino guztien gainetik zelatariek, olerkariak eguneroko errealtatetik ez ihes, ordea, arnasa hartzeko aukera ezinhobeak eskaintzen dizkigute. Eta zer esanik ez, gauden momen-

tuan, –ospa egiteko gogo– are gehiago. Benetako olerkiek, iraungitze data gainditzen dutenek alegia, Gizonarekin adiskidetzen gaituzte eta, batez ere, egunerokotasunean garrantzitsu eta oinarrizkoak iruditzen zaizkigun arazo larriak bere lekuan kokatzeko, azken finean, erlatibizatze tresnarik aproposenak izan daitezke. Maitasuna, bizitza –zenbatetan dago Euskadin?, «Heriotza iritsiko da eta zure begiak izango ditu...», zioen Pavesek–.

Huskeriaz inguraturik gaudenean, pikulitxara bidaltzeko tentaziopean erortzeko zorian, olerkari klasiko baten poemak berrindartu eta errealtatearen begirada berri bat sortarazteko ahalmena dute. Beraz, garai iluna bizitzen gaudela badiogu, irteera aproposa, paradisu artifizialetera jo gabe, daukagu. Olerkia antidoto miresgarria da eta gainera sarritan gure ondoezak asetzen dizkigu.<

«Poesiak egia sakonengana helarazten gaitu, eta hitzak eta mezuak zarata hutsak edota harrikadak besterik ez direnean, bertsoen edertasunari munduarekin elkartzeko biderik zintzoena deritzot»

barruan



Jaione Isazelaia

Badihardugu elkarteko kidea

«Belaunaldi barrixen artian berbete hibrido bat ari da nagusitzen»

6.



Iasone Olañeta

Urkiola jantzidendakua

«Lanian gutxien gustatzen jatena ordutegixa da; batez be, zapatu atsaldetakua»

19.



Luis M. Gutierrez

BKEko pilota sailekoa

«Aurten ere Bergara Hiria txapelketa maila handikoa izatea espero dugu»

20.

hi, gazte!



BEKAK

Arte. Marcelino Botín Fundazioa. Prestakuntza-bekentzako 23 eta 40 urte bitarteko adina izatea. 8 beka, aste-sorkuntzaren esparruan proiektu pertsonalen prestakuntza, ikerketa eta burutzapenari zuzendutak. Epea: maiatzak 18

Fulbright. Fulbright Komisioa. Titulados superiores en junio de 1995ko ondorengo Goi-mailako titulodunak; ingelesa menperatu. EEBB-tan graduondoko ikasketak egiteko 20 beka. Epea: maiatzak 7

IHARDUERAK

Oporraldi jarduerak. Gipuzkoako Foru Aldundia. 14-17 urte bitartekoentzat. 7 edo 14 egunetako Txandak (euskaraz eta erdararaz): Kirol ekintzak, frantses eta ingeles ikastaroak. Zozketarako lizenematea; Gazte Informazio Gunea (Bergarako Kultur-etxea). Epea: apirilaren 25etik maiatzaren 7ra. Informazioa: 943-779157/8 edo <http://www.gipuzkoa.net/oporraldi>.

Auzolandegiak. Kutxa. 16 eta 29 urte bitartekoentzat. Gipuzkoa mailan. Epea: maiatzak 31

IKASTAROAK

Udako ikastaroak. EHU. Arlo ezberdinetako mintegi, ihardunaldi eta ikastaroak: hezikuntza, gizarte zientziak, medikuntza, zuzenbidea, ingurugiroa... Izena emateko epea: maiatzak 7tik aurrera.

LAN ESKAINTZAK

Eibar. Eibarko Udala. Zuzenbideko, Politika Zientzietako edo Ekonomia Zientzietako lizentziatua, Merkataritza Intendentea edo Aktuaria izatea; Euskarako 4. hizkuntza-eskakizun. Administrazio orokorreko teknikari-lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Epea: maiatzak 10

2 psikologo. Nafarroako Foru Komunitatea. Psikologian lizentziatua. Epea: maiatzak 9

Hizkuntza normalizazioa. Legazpiko Udala. Ingeniari tekniko, unibertsitateko diplomadua, arkitekto tekniko, 3. mailako LH edo baliokidea izatea. Epea: maiatzak 10

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekie, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunaera.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak. Telefonoa: 943 77 91 57. E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00. Larunbata: 09:30-13:30.

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizuke Gazte Informazio Gunaera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia gutziko informazioa zabaltzeko. **Mila esker.**

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru



Blastio

Astindua, jipoia, egurra.

– *Dendan lapurretan ein zebalako blastiua emun dotsa semiai.*

hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Apirilak 26, eguena	20 °C	6 °C	– 1/m ²
Apirilak 27, egubakoitza	16 °C	7 °C	– 1/m ²
Apirilak 28, zapatua	21 °C	2 °C	0,2 1/m ²
Apirilak 29, domeka	16 °C	8 °C	0,6 1/m ²
Apirilak 30, astelehena	9 °C	5 °C	24,9 1/m ²
Maiatzak 1, martitzena	16 °C	3 °C	3,7 1/m ²
Maiatzak 2, eguaztena	15 °C	7 °C	7,4 1/m ²

mezak

Santa Marina

Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.

San Pedro

Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:15.

Sierbak

Lanegunak: 19:30.

Osintxu

Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:30.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK

Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

Labegarieta

Domekak: 11:00.

San Lorenzo

Zapatuak: 20:00.

Angiozar

Domekak: 11:00.

Monja Zaharrak

Domekak: 18:00.
Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

Mizpirualde

Lanegunak: 11:45.

Zapatuak: 17:30.

Antzuola

Domekak: 09:00, 11:30.

Zapatuak eta lanegunak: 19:30.

Uzarraga

Domekak: 10:00.

urbanoa

San Lorenzo/San Jandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta/Olabarretetik irteerak

07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

kontuan hartu...

FARMAZIAK

EGUAKITZA 4:

CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

ZAPATUA 5:

PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

DOMEKA 6:

PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

ASTELEHENA 7:

GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

MARTITZENA 8:

ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

EGUAZTENA 9:

MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15

EGUENA 10:

CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

OGIA

DOMEKA 6. Konde

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40

Bergarako udaltzaingoa. 943 77 91 06

Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46

Ertzaintza 943 76 53 40

Osasun Etxea 943 76 24 40

Asepeyo 943 76 16 43

Pakea 943 76 13 49

Angiozarko medikua 943 78 90 27

Antzuolako medikua 943 76 62 23

Odol emaleak 943 76 16 24

Alkoholiko anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako udaletxea 943 77 91 00

Antzuolako udaletxea 943 76 62 46

Udal Artxiboa 943 77 91 32

Igerilekuak 943 76 20 51

Kultur Etxea. 943 77 91 58

Liburutegia 943 77 91 62

Kirolegia 943 76 56 41

Mizpirualde Egoitza. 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92

Erregistroa 943 76 13 15

Jardun 943 76 36 61

Idolaz 943 76 65 08

Jubilatuena Etxea. Bergara. 943 76 21 40

Antzuolako jubilatuena elk. 943 76 62 71

Postetxea 943 76 26 85

Bedelkar 943 76 04 68

Akulu AEK 943 76 05 18

Udal euskaltegia 943 76 44 53

Bergarako notaritza. 943 76 10 73

oharrak

■ **1963**an jaiotakoen bazkaria maiatzaren 19an Torrekua jatetxean. San Martin plazan elkartuko dira, 13:00etan. Izena ematea Ariznoa tabernan hilaren 15a baino lehen.

■ **1949**an jaiotakoen bazkaria Tartufon maiatzaren 19an. Izena ematea Tartufo jatetxean.

■ **1942**an jaiotakoen afaria maiatzaren 19an Azpeitxi jatetxean, 21:00etan. Aurretik meza Santa Marinaran, 19:00etan. Izena ematea (2.000 pezetako depositoa) Mizpildi okindegian, Edel tapizdendan edo Azpeitxin.

■ **Gestorak** antolatuta, «Panti eta Kanto 13 eta 14 urte espetxean, aski da!» lemapean ekitaldi politikoa eta manifestazioa San Martin plazan gaur, egubakoitz, 19:30ean. Bihar, Martutenera martxa 10:00etan. Arratsaldean, mitin nazionala Belodromotan, 18:00etan, eta gauean, herri afaria Artatsen, 21:30ean.

zorionak!



Irati Eguren
4an 4 urte.
Urte askotarako!
Jone eta etxeokak.



Josu Zubia
4an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak; batez ere,
Miren eta Iker.



Jon Aranzabal
9an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Uxue Agirre
8an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Asier Kortabarria
4an 9 urte.
Urte askotarako!
Aitor eta etxeokak.



Miren Larrañaga
5ean 5 urte.
Urte askotarako!
Miren, Mikel eta
Ainhoa.



Andoni Mujika
7an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Ane Barragan
10ean 8 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama, Jon eta
etxeokak denak.



Ander Uriarte
10ean 7 urte.
Urte askotarako!
Amaia, gurasoak
eta Marije.



Aitor Lazkano
7an 8 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta
Ainhoa.



Ruth Mancho
5ean 2 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta
Sara ahizpa.



Andoni Etxezarreta
10ean 5 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak eta Nerea.

jardunen agenda



■ **Pegatina lehiaketa:**

Bergarako jaietako pegatinetan hik asmatutako esaldia agertzea nahi badok/n, asmatu esaldia eta bota ikastetxe eta tabernetako kaxetara maiatzaren 10 baino lehen.

Saria 10.000 pezetakoa duk/n!

*Hurrengo alean,
maiatzaren
11tik 17ra
bitartekoan zorion agurrak
argitaratuko ditugu.*

Nutrizioari buruzko ikastaroa

**Maiatzaren 2tik
ekainaren 7ra**

Ordutegia aukeratzeko modua:

1. Astelehen eta eguenetan
19:00etatik 21:00etara
2. Eguazten eta egubakoitzetan
15:00etatik 17:00etara

**Izena emateko azken eguna
MAIATZAREN 9a**


Jarduneko bazkideek

4.500 Pta

Gainerakoek **5.500 Pta**

Informazioa:

943 76 36 61



GAIAK:
Proteinak
Koipeak
Hidratoak
Janari taldeak
Sukaldeko higieena
Mediterraneoko dieta
Esnekiak, arrautzak
Kontserbak
Menuak



Badihardugu elkarteko bi kidek Deba arroko euskararen gaiñeko berbaldixa egin zebe eguaztenian, Jardunek antolatuta. Bi hizlari horietako bat Jaione Isazelaia bergararra izan zan. Badiharduguren xede eta helburuez berba egin dogu Jaioneekin.

G. Zer da Badihardugu?

E. Badihardugu euskalkixen prestijua indartzeko sortutako elkarte bat da. Ahozko jarduna dauka batez be goguan, baiña idatzita be erabiltzia komeni danez, ortografixia eta ahoskeria arautze lanian gabitz momentu honetan. Helburu nagusixa berbetia ahozkuan indartzia eta lotsak kentzia bada be, benetan prestijiatu nahi badogu, idatzixetan euki biheko leuke bere tokixa: herri aldizkarixetan, gure arteko oharretan, iragarki eta bestelakuetan.

G. Zergaittik erabilli bihar dogu euskalkixa?


E. Garbi dagona da, transmisiño kulturala indartzeko ahalegiñetan, transmisiño naturala atzera xamar laga dogula, gaur egun zaharrak, betiko euskaldunak akonplejauta dauzkagu, gaiñera gaztien berbeta ganarabakua zuzentzera be ez dira ausartzen guraso eta aititita-amamak eta sarri askotan umien berbetia kopixatzen saiatzen dira: "Zure zorionak" eta holako asmake-rixa zatarrak geroz eta zabalduago dauzkagu euskaldun petu-petuen artian eta belaunaldi barrixen artian ez gatzik eta ez berakatzik ez daukan berbeta hibrido bat ari da nagusitzen.

Poliki-poliki bagoiaz konturatzen zerbaitek fallau dabela, eta hainbat estamentutan kezka zabaltzen joan da. Zer da ba gaizki egin doguna? Badaukagu

JAIONE ISAZELAIA

Badihardugu taldeko kidia

«Belaunaldi barrixen artian berbeta hibrido bat ari da nagusitzen»



Jaione Isazelaia eguaztenian eskaini zeban hitzaldixa kultura etxian.

telebista, eskola, euskaltegi-xak, herri aldizkarixak, literatura, goi-maillako ikasketak euskeraz... Baiña entzuten dogun euskera ezta bape aberatsa.

Hizkuntza bat sendo eta osasuntsu egoteko, etxian eta lagunartian erabilli bihar da, ez da nahikua eskolan erakustia. Etxian eta lagunartian erabiltzen dan ber-

«Euskalkixak eta batuak esparru ondo zehaztuak dauzke: euskera batua nazio hizkuntza da, eta euskalkixa, berriz, herrikua»

betiak badauka jatortasun, benekotasun eta adierazgarrittasun berezixa; eskolan erabiltzen danaren aldiari ziharo bestelakua da, hizkuntza osua eta sendua nahi badogu, esparru dantetan erabilli eta landu bihardugu.

G. Deba arorako euskalki batua egiten diharduzue?

E. Ez, gure asmua ez da Deba Ibarreko euskera batua sortzia iñolaz be, honek ez dauka iñolako zentzurik, nortasun haundiko herrixak dira gure eskualde honetakuak, herri bakoitzak bere berbetia mantentzia izango litzake gure helburua.

G. Zein da batuaren eta euskalkixaren arteko harremana, eta zein bakoitzaren erabillera esparrua?

E. Berbetiak beste euskaldunen artetik bereizten gaitu, eta herrixa kohexionatzen dau. Bereizketa honek zatitzaile bezala ez dittugu hartu bihar, aberasgarri bezala ikusi biheko giñuzke. Euskaldunon artian elkar ulertzeko hor daukagu batua, baiña gure komunika-ziño portzentairik haundixena geure herrikuetkin izaten da eta euskalkixan, beraz, berau da indartu biharrekua. Batua ikastia berriz ezinbestekotzat jotzen dogu, irakurketarako, idazketarako eta komunikabideetako hizkuntza da eta.

Euskera batua eta euskalkixak ez dira iñolaz be etsai, osagarri baiño. Bakoitzak bere esparrua ondo zehaztuta dauka, euskera batua nazio hizkuntza da, eta euskalkixa, berriz, herrikua.

G. Batua, oraindik, borobildu barik, merezi dau euskalkixan energia ematia?

E. Euskalkixak indartzia euskeraren onerako dala sinisten dogu. Euskeraren errekuperatze prozesuak ez dauka zertan bide bakarretik juan bihar.

Feritur, Debagoieneko II. Turismo Azoka, hilaren 12an eta 13an Bergaran

Bergaran egingo dute aurten Debagoieneko Turismo Azoka. Halcon Bidaiak agentziak eta Mankomunitateak antolatu dute, eta aurten bigarren aldia du. 20 postu inguru egongo dira azokan. Helburu nagusia Debagoieneko eta inguruetako eskaintza turistikoa erakustea da.



Disney eta Futuroscope bezalako parke tematikoek standak izango dute.

Hilaren 12 eta 13an, Seminarioan jarritako karpa erraldoi batean hogeitau stand inguru jarriko dituzte: instituzio pribatu, zerbitzu turistikoen enpresa, bidaiak agentzia maiorista, turismo bulego eta Debagoieneko Mankomunitatearen postuak ikusi ahal izango dira beste batzuen artean.

Feritur, Debagoieneko II. Turismo Azoka du izena, eta iaiz sortu zuten Halcon Bidaiak agentziak eta Debagoieneko Mankomunitateak. Lehenengo feria hura Arrasaten egin zuten, eta

antolatzaileen esanetan oso harrera ona izan zuen.

Debagoienak baliabide turistikoko ugari du antolatzaileen arabera, baliabide natural, historiko eta artistikokoak, besteak beste. Hala ere,

horietako asko ezegunak dira, edo ez daude erabilera turistikorako prestatuta. Feriturrek baliabide horiek erakustea du helburu.

DEBAGOIENA EZAGUTZEN

Hori horrela izanik, aurten go azokaren berritasun nagusia honakoa da: Debagoieneko eskaintza turistikoa komertzializatzeko lehenengo ekimena aurkeztuko dute. Eskaintza horretan, bailarako zein Gipuzkoako ostatu eta gainerako zerbitzu turistikokoak batzen dira. Azken batean, norberak bere bidaiak diseinatzeko aukera izan dezan. Halcon Bidaiak agentziaren, Debagoieneko Mankomunitatearen eta Aldundiaren ekimena izan da.

Jesus Kalboetxeaga, Pazkoetako kartel lehiaketako irabazle

Jesus Kalboetxeaga bergararrak irabazi du jaietako kartel lehiaketa, eta ondorioz, 100 mila pta.ko saria. Beraz, haren irudiak iragarriko ditu aurtengo Pazkoak. Guztira, hamalau lagun aurkeztu dira lehiaketara. Epaimahaiak Kalboe-

txeagaren lana aukeratzeko arrazoia da, batez ere, oso mezu argia duela. Baita, nagusiki, hain bergararra den kolore urdina erabiltzea ere.

Kalboetxeagaren lana, bestalde, ez da aurreko urteetan bezain koloretsua, urdin iluna du nagusi. Esku-

mako irudian ikus daitekeen moduan, hondoan udalletxea, bigarren planoan dantzari bikotea eta lehenengo mailan danbolin sorta, eta suzko errubera baten argia aukeratu ditu egileak jaiak iragartzeko elementu moduan.



Kalboetxeagag egindako irudia.

CAMACHO
Drogeria Usaindegia
Bidekurutzeta 24 BERGARA
☎ 943 76 13 35

PINTXO eta BOKADILLOAK SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g ☎ 943 76 07 92

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
☎ 943 76 20 34

Usoa Pub

☎ 943 76 38 57
Irala 1

Angiozarko Beheko Kalean konponketak egingo dituzte

Angiozar auzoko Beheko Kalean gasa, argia, telebista, eta telefono hariak lur azpitik sartuko dituzte. Horretarako, kaleko lurra jaso eta sei hodi erabiliko dituzte. Lan hauen helburua aipatutako kable guztiak faxadetatik kentzea da. Behin hodiak lur azpian sartuta, kalea bera ere konpondu egingo dute. Izan ere, orain egoera kaskarrean dago. Udaleko iturrien arabera, lanak, seguruenik, datorren astean hasiko dituzte. Atzerapenik egonez gero, ez litzateke atzerapen luzea izango: bi aste barru hasiko lirateke lanak.

Beheko Kaleko urbanizazio lanen bigarren faseari dagozkio aipatutako obrak. Lehenengoan, duela hiru



Oso estua zelako, duela hiru urte zabaldu egin zuten kalea.

ARTXIBOA

urte, kalea zabaldu egin zuten, oso estua baitzen ibilgailuendako. Kalea zabalitzearekin batera, uraren hoditeria ere lur azpian sartu zuten. Hala ere, ez omen zizuten lan haiek ondo egin, eta berrikusi beharra dago.

Gauzak horrela, aipatutako hoditeria berria sartzeko zabalitzen dutenean, urarena ere konpondu egingo dute.

Lanok, Mitxiaiak SL enpresari esleitu dizkio udalak 13.828.909 pezetan.

Barraken prezioa Pazkoetan

Pazkoetan, barraketa, umeek eta nagusiek 200 pezeta ordainduko dute bueltako. Bestalde, Haurren Egunean, 100 pezeta balioko ditu buelta bakoitzak.

Euroa erabiltzen ikasteko kanpaina

Gizarte Ongizate zerbitzuak euroaren inguruko kanpaina antolatzeko dihardu. Udaleko iturrien arabera, plazan karpa bat jarri, eta kontsumitzaile eta merkatarien artean eurotan truke-itxurak egiteko asmoa dute. Helburua euroa erabiltzen ikastea da.

Hiru mila langile inguruk egin zuten ordubeteko lanuztea

Joan den egubakoitzean, Lan Segurtasuneko Nazioarteko Egunean, ordubeteko lanuztea egin zuten hainbat lantegik sindikatuek deituta. Lanuztearen arrazoia da azken urteetan lan istripuek izan duten gorakada. Eguenean, lanuztearen aurreko egunean, langile batek bizia galdu zuen Donostian. ELAko ordezkarien arabera, Bergaran 3.000 langile inguruk utzi zuten lana egubakoitzean, 11etatik 12etara. Batez ere, enpresa handietan izan zuen eragina lanuzteak, baina lantegi txikiren batzuk ere utzi zioten lanari ordubetez. Enpresen aurrean elkartu ziren langileak.

Argazkian ikus dezakegun bezala, udaleko langileek udalaxe aurrean ireki zuten pankarta.



KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate, 1. 943 76 02 57

Agirrebeña

JATETXEA



Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

DEBA
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behe
943 76 21 80 / 943 76 06 37

Eolikoen aurkako kanpaldia eta erromeria Irukurutzetan

Datorren asteburuan bi ekitaldik bat egingo dute Irukurutzetan. Batetik, domekan, erromeriak; bestetik, zapatutik domekara arte egongo den parke eolikoen aurkako kanpaldiak.

Eolikoen aurkako Soraluze, Azpeitia eta Elgoibar-ko taldeek antolatu dute kanpaldia. Bergararen kasuan, talderik ez dago, baina hainbat lagunek egin dute bat ekitaldiarekin. Irteera zapatuan izango da, 15:00-etan, Soraluzeko zubian. Irukurutzetan, afari-merienda egingo dute, eta ostean, erromeria, akelarrea eta txotx-a. Domekan, 9:30ean, mendi lerro osoan ibilaldia egingo dute. Proiektuan aurrez ikusitako 40 errötak non jarriko dituzten azaldu-



Erromeriak eta eolikoen aurkako akanpadak bat egingo dute Irukurutzetan.

ko dute aditu batzuek, eta baita horiek ekarriko lituzketen kalteak ere.

ERROMERIA

Domekan izango da Txururumilo taldeak antolatutako erromeria. 11:30ean me-

za egongo da pago bedein-katuan. Ostean, salda eta Irukurutzetara igoera. Bazkalondoan, Ainhua eta Nerea zarautzarrekin erromeria egongo da. Eguraldi txarra egingo balu, meza 'aitxan txaboletan' egingo dute.

Kontribuzioa ordaintzeko epea aldatu egin dute

Orain arte iraila hasieran ordaintzen bage-nuen ere, aldatu egin dute ordainketa data. Aurten, maiatzaren 15ean hasi eta uztailaren 2ra arte ordaindu behar-ko dugu kontribuzioa. Aldaketaren arrazoia da balio katastral berrien jakinarazpena udazkenean egin behar dela. Hori horrela izanik, balio katastralak eta kontribuzioak batera ez izateko, aldatu egin dute azken horren ordainketa epea. Datorren urtera begira, seguruenik, aurtengo epealdi berrian egin behar-ko da kontribuzioaren ordainketa.

Kontribuzioa ordaintzeko epea aldatu dela eta, udalak herritarrak ohartarazi nahi izan ditu: ordainketa Kutxan helbideratuta dituzten herritarren kasuan, karguak ekainaren hasieran izango dira. Gainerako banketxeetan ere antzera izango dela jakinarazten dute. Kontu korrontean dirurik egon ezean, abisua etxera helduko zaie.

Helbideratu gabeko- en kasuan, ordainagiria etxera helduko zaie, eta ordaindu ezean, abisua ere etxean jasoko dute.

Gipuzkoako garbitzaileen manifestazioa

Manifestazioa egin zuten, apirilaren 26an, ehunen bat garbitzailek. Pro-bintzia mailako manifestazioa izan zen. Herriz herrikako mobilizazioak egiten ari dira Gipuzkoako arlo pribatuko garbitzaileak, apirilaren 23an greba hasi zutenetik. Lan Hitzarmen justo-agoa eskatzen dute.



Sukaldeko altzarien eta horma-armairuen fabrika

- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6. pabilioia. ARRASATE. 943 71 25 08

Berrigara

450 zenbakia.
2001eko maiatzaren 4a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefona: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi,
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Mireia Larrañaga.
Harpidetzatzaileak: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak: Sergio Azkarate,
Gari Bragado.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
M. Angel Elkoroberebar, Alex Labaien,
Estepan Plazaola.
Komikiak: Peru Azkarate, Oihan Vega,
Usua Mendikute, Gorka Ortega &
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre,
Juan Martin Elexpuru, Arantzazu Oregi,
Gorka Ortega.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk.
(Zubillaga. Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara

Tirada: 5.400 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
irritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Berrigarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaureritzako
Kultura saila

atrebentzia ezpada

Poltsikoko telefonoik erabiltzen dozu? Gaur egunian gehixegi erabiltzen dala uste dozu?



Mikel Pozo

Ez dot erabiltzen, eta bai,
uste dot gehixegi erabiltzen
dala. Askok, gaiñera,
tontuana egitteko eruaten
dabe; ez dabe erabiltzen.



Brigido Gonzalez

Nik ez daukat poltsikokoik.
Ez dotsat zentzuik topatzen
poteuan mobilakin ibiltziaz.
Etxetik kanpo deskonekta-
tzia gustatzen jat.



Luis Arizaga

Nik ez dot erabiltzen, baiña
gaur egunian gehixegi
erabiltzen dala uste dot.
Bestetik, batzuetan ondo
datorrela be pentsatzen dot.



Esther Belategi

Badaukat, baiña ez dot
erabiltzen. Uste dot, ja,
jende askok ezin dabela
etxetik urten poltsikoko
telefono barik.



Rosarito Iriarte

Jende askok erabiltzen dau.
Irakaslea naiz, eta ikasleen
artean be gero eta gehiagok
dauke, nahiz eta erabili ezin
diruik ez daukelako.



Mª Dolores Clemente

Nik gutxi erabiltzen dot,
baiña gaur egun
ezinbesteko tresna bat dala
emoten dau. Erosotasunera
ohitzia erreza da.

tira biraka gorka ortega & jon alvarez



adituen esanetan

Haurdunaldia

Emakume bat haurdun gertatzen denean, bere gorputzean aldaketa ugari gertatzen da, eta denbora oso laburrean, gainera. Aldaketa horiek guztiak, batez ere, haurdunaldiarekin estrogenoak izugarri ugaltzen direlako jazozen dira. Estrogenoen ugaltzeak, beraz, aldaketa gogorak sortarazten ditu: logura areagotzen du, arazo gastrikoak... Baina, denborarekin, bat-batean agertutako aldaketa horiek bere egiten joaten da gorputza, eta egoera orekatuz joaten da.



JOSE RAMON SERRANO

Ginekologoa

«la edozein kirol mota egin daiteke haurdunaldian zehar. Kirol gogorak eta jauziak egitea, hala ere, ez da komeni»

Gomendagarriena bizimodu normalarekin jarraitzea da, dieta orekatu batekin, eta ohitura osasuntsuekin. Jakinekua denez, haurdunaldia aurrera doan neurrian, muga batzuk sortzen zaizkio emakumeari, muga fisikoak: kirol gogorak egitea ez da batere gomendagarria, jauziak egitea ere ez, pisuarekin ibiltzea...

Baina ia edozein kirol mota egin dezakete haurdunaldian zehar: bizikletan ibili, mantimendu gimnasia... Aerobika edo korrika egitea, esaterako, ez dira batere onak, jauziak egiten direlako.

Gaur egun, azido folikoa hartzen dute emakumeek, haurdun gertatu aurretik eta lehendabiziko hiruhilekoan. Oso garrantzitsua da azido folikoa hartzea, fetuak arazo neuronalik izan ez dezan.

Bestalde, kaltzio askodun dieta izan behar

dute. Horrek esan nahi du, egunean lau bat esneki hartzea gomendagarria dela: bi basokada esne, eta bi jogurt, esate baterako.

Elikadurari dagokionez beste atal garrantzitsu bat burniarena da. Haurdun dauden emakumeek burni aportazio gehigarria hartu beharko lukete. Horrela egingo ez balute, %80k anemia izango luke. Burniaren kasuan, dieta aldatzea baino hobe izaten da piluletan hartzea, bestela kaloria gehiegi emango bailuke.

Bestalde, haurdunaldian zehar erretzea (eta baita bestela ere, noski) oso kaltegarria da, bai emakumearentzat, bai haurarentzat. Beraz, erretzaileek egunean hiru-bost zigarro baino gehiago ez lukete erre beharko.



Haurdun dauden emakumeek burni aportazio gehigarria behar dute.

kaleen izenak



Barrakak Boni Laskurain kalean 1980 inguruan.

Boni Laskurain ibiltokia (eta II)

Lehenago, gaur egun anbulatorioa dagoen inguru horretan hasita, trenbidea pasatzen zen. Beheko trena, Vasco-Navarro delakoa, pasatzen zen gaurko ibiltokitik. Trena kendu zutenean, (1967ko abenduaren 31an) beste erabilera bat emateko aukera izan zen, eta hainbat eraikin berri jaso zituzten.

Asko idatzi daiteke Boni Laskuraini buruz. Hona hemen laburpen bat: Bonifacio Laskurain Olano Iruran jaio zen 1882ko maiatzaren 14an. Boni lanera etorri zen Bergarara, txistularien bandako zuzendari bezala, eta ordutik aurrera gure herrian aritu zen. Hil zenean, udalbatzak 1978ko urriaren 30ean egindako bileran, familiari doluminak adieraztea eta herriko kale bati bere izena jartzea erabaki zuen. Aktak dioenez, txistularien bandan, eta txistua josten erakusten 1922tik hil arte gure herrian egindako lana eskertzeko hartutako erabakia da.

Boni Laskurain hil zenean, 1978ko urrian, udalbatzak familiari doluminak adieraztea eta herriko kale bati bere izena jartzea erabaki zuen.

Testua: Arantzazu Oregi, Udal artxibozaina.
Argazkia: BUAK utzia (Roman Larrañaga fondoan).



Seihun bat lagunek parte hartu zuen ibilaldian. Bide batez, AHTa nondik pasatuko litzatekeen ikusi ahal izan zuten.

AHT Bergaran zehar

Domekan AHTaren aurkako ibilaldia egin zuten, Bergaratik Angiozarrera

Jende mordoak parte hartu zuen ibilaldian, bai bergararrak eta baita kanpotik etorritakoak ere.

Abiadura Handiko Trena Bergaratik igaroko da, eta Angiozar inguruan eragingo du, bereziki.

Aurten hastekoak dira trenbidearen ibilbidearen lanak. AHTa Gelditu! Elkarlanean talde sortu berriak deituta egin zuten domekako ibilaldia.

Euskal Herriko hainbat erakunde eta mugimendu sozialek osatzen dute AHTa Gelditu! Elkarlanean taldea. Guztira, 30 bat erakunde eta taldek osatzen dute. Tartean, baita Angiozarko batzarrak ere. Duela aste batzuk egin zuten talde berri horren aurkezpena, eta AHTaren aurkako euren jarrera erakustez gain, jarrera horren zergatiak ere azaldu zituzten.

AHT-A GELDITU!, BAINA, ZERGATIK?

Sortu berri den talde honen ustez, proiektu hori erabat anti-soziala, anti-ekologikoa eta baliabide-xahutzailea da, eta Euskal Herriarentzat ez da bate-are aproposa. Alde batetik, eragiten di-

tuen kalte fisiko, sozial eta ekonomikoak salatzen dituzte taldeko ordezkariak, eta bestalde, nekazaritzari eta lurralde orekari eragiten dizkion kalteak.

ERAGIN EKOLOGIKOA ETA SOZIO-EKONOMIKOA

AHTa Gelditu! Elkarlanean taldearen arabera, ingurugiroan AHTak eragingo dituen kalteak nabarmenak izango dira. Euren esanetan, kontuan hartu behar da, 250-280 kilometro orduko abiadura hartuko duela tren horrek. Horrek zera esan nahi du: ibilbide zuzen eta al-daparik gabeak beharko dituela. Horretarako, hainbat tunel, biadukto eta inausketa egin beharko dituzte, eta sistema hidrológicoarengan eta lurralde emankorregan kalte handiak eragingo.

Energiari dagokionez, gastu handiak izango ditu. Zarata handiak ere sortuko ditu, tunelak hasten diren guneean, batez ere.

Bestalde, sortuko dituen eragin soziologiko eta ekonomikoak ere salatu dituzte taldeko kideek. Hiriburuen arteko lotura bermatuko baitu tren horrek, baina, era berean, horrek kalte egingo die tarteko herri txikiagoei. Gainera, nekazal guneei ere kalte nabarmena egingo die Abiadura Handiko Trenak. Kontuan hartu behar dugu, trenbideak berak 15 metroko plataforma beharko duela; baina, horretaz gain, hiribarruko lurraldeetan 65 metro gehiago okupatuko duela aldeetara, eta nekazal lurretan, berriz, 100 metro gehiago. Horrek, noski, desjabetzapenak ere ekarriko di-

tu. Bestalde, abiadura handia hartzeko, energia gastu handiak sortarazteaz gain, kutsadura energetikoa ere sortuko du, tentsio handiko kableatu handia beharko baitu, AHTaren aurkako taldeko kideen esanetan.

AHT-AREN HELBURUAK

Sustapen Ministerioak gaur egungo errepide bidezko eta tren bidezko EAEko egoeraren diagnostia egiten du proiektuaren bere azterketa informatiboan. Diagnosti horren arabera, EAEko tren sarearen egoera ez da oso ona, eta, gainera, azken 60 urteetan ez du hobekuntza nabarmenik izan. Azterketa horren ondoren, hainbat helburu azaltzen ditu, proiektuaren bere azterketa informatiboan: batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuak hobeto komunikatzea. Bestetik, Estatu mailan, komunikazioari dagokionez EAE hobeto integratzea, denbora aurreztuz, eta kalitatean, segurtasunean eta erosotasunean irabaziz. Hirugarren helburua, eta nagusietako bat, gainera, Estatu Espainiarra Europako trenbide sarean sartzea da, hau da, Europako sarearekin bat egitea, horrela, Europarekiko komunikazioa hobetzeko.

EUSKAL Y PROIEKTUA

Abiadura Handiko Trenak, Euskal Autonomia Erkidegoan Y formadun ibilbidea egingo du, orrialde honetako irudian ikus dezakegun moduan. Europatik, kasu honetan Frantziatik, datorren ibilbidea, beraz, bitan zatituko da. Eta zatitze hori, gainera, Bergaran gertatuko da, Angiozarren, hain justu. Bitan zatitu, eta Bilborako eta Gasteizerako



norabideak hartuko ditu. Gune horretan, hau da, bitan zatitzen den gunean, tuneletan sartzen da trenea, norabide guztietan. Horrela, hiru tunel egingo dituzte, Udalaiz mendia zeharkatuko dutenak: Bilborantza bi, norabide bakoitzean bat, eta Gasteizerako beste tu-

nel bat, bi norabideetarako tunel bakarra, azken kasu horretan.

Abiadura Handiko Trena, Europarekin lotzeko proiektua da, beraz, Sustapen Ministerioak txostenean azaltzen duenez. Paristik dator Abiadura Handiko Trena, eta Euskal Herritik igaro ostean, Madrileraino jarraituko du, bate-tik, eta Lisboara, bestetik.

Sustapen Ministerioaren arabera, azpiegitura honek aurrerapausu nabarmena ekarriko digu, bai bidaiarien garraioari dagokionez, eta baita merkantzien garraioari dagokionez ere.<

Abiadura Handiko Trenaren helburuetako bat EAEko hiru hiriburuak elkarrekin hobeto komunikatzea da



gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Ekitaldi ugari Gaztetxean

Asteburua luzea zela aprobetxatuz, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Gaztetxeok. Zapatuan **euskal film laburrak** eskaini zituzten. **Poesia errezialdia** ere egon zen, eta gauean, **kontzertua**. Astelehenean, **mus txapelketaren** ondoren, **poteoa** egin zuten; triki-poteoa izan behar zuena, poteoan utzi behar izan zuten, eguraldi txarra zela eta. Gauean **Triki Ta Ke** taldearen kontzertua izan zen Kartzelan. Aurrez, argazkian ikus dezakegun moduan, **afaria** izan zuten.



Santutxu jai giroz jantzita



Aurreko BERRIGARAN iragarri genizuen moduan, jai giroz jantzi zen martitzenean Santutxu. Eguraldiak ere lagundu zuen, eta jende mardoa joan zen Elosu aldera. Denetik egon zen hantxe: **bertsolaria**, **dantzariak**, **erromeria**, eta baita zer jan eta zer edana ere. Pozik geratu ziren, bai, Elur Txikikoak.



Ur-bide
ITURGIN TZA

Zubieta, 28-behea
BERGARA
943 76 00 57
630 261 617


MIZPILDI

OKINDEGIA

Matxiategi 1
943 76 72 73

Mizpildi 8
943 76 12 32

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA



BANKINTER

%4,95

etik aurrera lehen 3 urteetan

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren*

*Irekiera
komisioa:
%0,25.
35 urte
bitarteraino



Ibargarai 11-13 BERGARA
Telefona eta faxa: 943 76 70 58



Zure sukaldea.



IPINTZA INSTITUTUA

Batxilergo modalitateak

Teknologikoa

Giza eta gizarte zientziak

Natur eta osasun zientziak

AURREMATRIKULAZIO EPEA

maiatzaren 2tik 11ra

Ohiko matrikula epea: uztailaren 2tik 6ra

Ordutegia: 09:00etatik 13:00era eta

15:00etatik 17:00etara.



B. Laskurain 19
Tf. 943 76 31 42



Berri gehiago nahi baduzu deitu gure telefonoetara eta gure eskaintzari buruzko azalpenak emango dizkizugu.

SAN MARTIN - P

B e r g a r a k o i a

M. ALTUNA INSTITUTUA

Goi mailako prestakuntza zikloak

Administrazio eta finantzak

Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak

Mekanizazio bidezko produkzioa

Proiektu mekanikoen garapena

Plastiko eta kautxugintza

Idazkaritza

Erdi mailako prestakuntza zikloak

Mekanizazioa

Ekipo eta instalazio elektroteknikoak

Administrarritza kudeaketa

AURREMATRIKULAZIO EPEA ekainaren 1etik 12ra

Ohiko matrikula epea: uztailaren 2tik 6ra

Ordutegia: 09:00etatik 13:00era



- Norberaren gaitasun eta nahien arabera egokitutako ibilbideak
- Behar diren baliabideekin
- Bide eta ate guztiak zabaltzen dituen ikasketak
- Eskola publikoa: integratzailea eta anitza

Ibargarai 1
Tf. 943 76 24 91 / 76 38 40

-PINTZA - M. ALTUNA

la s t e t x e p u b l i k o a k



Barrenkalea, 24



Txurigo Jatetxea



- ~Menua eta karta
- ~Ezkontzak
- ~Jaunartzeak
- ~Txerrikumea, bildotsa,
baserriko oilaskoa labean erreta...

OSINTXU. Tf. 943 76 48 63

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkartea, ANTZUOLA. Kazararia: Marijo Deogracias, Aintzane Irizar **Publizitatea:** Mireia Larrañaga **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 78. zenbakia. 2001eko maiatzaren 4a.

Aritz Berraondo, finalean

Datorren denboraldian lehen mailan jokatuko du

Gaur, egubakoitza, jokatuko du Aritz Berraondok eskuz banakako bigarren mailako finala Xalaren aurka, Donostian. Irabazten ez badu ere, datorren denboraldian lehen mailan jokatuko du, eta hori nahikoa garaipen da, bere ustez.

Hamar bat urterekin hasi zen pilotan Aritz. Txiki-txikitatik izan da kirolzalea, eta kirol guztiak probatu zituen: futbola, atletismoa, pilota... Baina, denborarekin, bat edo bestea aukeratzeko ordua iritsi zitzaion, eta pilotarekin jarraitzea erabaki zuen.

Horrela, Olalde pilota elkartean hasi zen, herriko beste hainbat ume bezala. Valentin Zabalo, eta, batez ere, Angel Mari Idiakez *Ezkio* izan zituen maisu.

Mutikotatik nabarmendu zen Berraondo, eta baita txapelketa ugari irabazi ere. Berak ere ondo gogoratzen ditu irabazitako txapelak. Oroitzapen polit asko daukala diosku: «zorte handia eduki dut, eta oroitzapen on asko daukat: Elgetako txapelketa irabazi nuenekoa, Argentinan



Berraondo eta Idiakez Antiguoko txapelketan, 1994ko abuztuan.

munduko txapelketa irabazi genuenekoa, Mexikokoa...».

Finalera begira, ondo ikusten du bere burua Aritzek, ilusioz beteta joango

da, nahiz eta badakien aurkari latza izango duela aurrean. Antzuolatik jende mordojoango da, ea horrek ere txapela eskuratzen laguntzen dion!

«Finala zaila izango da; Aritz ondo dago, baina Xala ere bai»



Andoni Azkargorta
Botileroa

Finala zaila izango da, Xalax oso ondo dagoela erakutsi baitu. Hala ere, Berraondo bera ere ondo dago, txapelketa hasi zenetik mentalizatuta dago. Zailena egin du, finalera iristea, eta pena izango litzateke, iritsi eta galtzea. Aritzek eskubiarekin oso bizi jartzen du pilota, oso urruti, eta horrekin min egiten saiatuko da.

«Kolpez ondo dago, eta sakez min egiten asmatu behar du»



Aitor Elkoro
Pilotaria

Sasoi onean ikusten dut Aritz finale-rako. Gainera, txapelketa ona egin duela uste dut. Hala ere, aurkari gogorra edukiko du egubakoitzean aurrez aurre. Xala baliabide handiko pilotaria da. Aritz kolpez ondo dago, eta sakearekin min egiten asmatzen baldin badu, nik uste dut badaukala txapeldun izateko aukera.


Aurtengo aurrekontuak apirileko osoko bilkuran onartu zituzten

Apirilaren 5ean izan zen osoko bilkura, eta aho batez onartu zituzten aurtengo aurrekontuak. Guztira, 437 milioiko aurrekontua izango du aurtengo udalak.

Batzordeka, Hirigintzak edukiko du aurrekonturik handiena, %38,83, hain zuzen ere. Hurrengoa Kultura izango da %19,32rekin, 84 milioi guztira.

Aurrekontuko 437 milioietatik ia erdia, %49,05, hain zuzen ere, inbertsioetara bideratuko du udalak. Inbertsiorik aipagarrienak Hirigintzan eta Kulturaren egingo dituzte. Hirigintzan 128 milioi pezeta inbertituko dituzte; besteak beste, errekaren desbideraketa eta industrialdea egiteko lur-sailak erosten, umeendako jolas parkea egiten, eta hainbat urbanizazio lanetan.

Inbertsiorik handiena, hala ere, Kultura Etxea egiteko izango da. Aurreko urteetako diru partidei beste 63 milioi gehitu dizkio udalak aurtengo aurrekontuetan. Guztira, 230 milioi pezeta baino gehiagoko aurrekontua dauka Kultura Etxeak. Udaleko arduradunek, le-



henbailehen lanekin hasia espero dute, baina lanak egingo dituen enpresaren baten bila dihardute, gehienak lanez lepo dabilta-eta. Bestalde, aurtengo au-

rrekontuetan izan da berrikuntzarik: udalak Goienako bazkide laguntzaile izatea erabaki zuen, eta 200.000 pezetako ekarpena egingo du aurtengoan.

Debarroko txapelketan atxabaltarrak nagusi

Aretxabaletako Errasti anaia izan dira txapelketako irabazleak nagusien mailan. Joan zen domekan jokatu zituzten txapelketako finalak Antzuolako frontoian. Errasti anaiek 21-22ko emaitzarekin irabazi zioten Muguruza-Gutierrez bikote bergararrari. Gazte mailan Azagirre eta Jauregi plazentziarrak izan ziren nagusi. Kadetetan, azkenik, Zuazua-Agirre mondragoetar bikotea izan zen txapeliduna.



GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA



Jose Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B. Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43

AITZ-GARBI



taberna
jaketxea

Pintxoak eta kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51

Patxiko Txerrenen, 65 ipuin aurkeztu dituzte

Duela lau bat urte-tik antolatzen du Antzuolako Udalak Patxiko Txerren ipuin sariketa. Hamahiru urte bitartekoek parte hartu dezakete bertan. Ez da, hala ere, ipuin lehiaketa. Izan ere, udaleko arduradunen helburua herriko umeei parte hartu dezatela da, eta ez, onenari saria ematea. Parte hartuko duten guztien artean, baina, Asterix eta Obelixen eta Megaren hainbat liburu zozkatuko dituzte, datoren hilaren 14an. Gainera, ipuin guztiak liburuxka baten batuko ditu udalak, eta liburutegian eta eskolan egongo dira irakurgai.


Iaz arte, lau urtez, nagusiendako literatura lehiaketa ere antolatu zuen Antzuolako Udaleko Kultura batzordeak, Patxiko Txerren izenarekin hau ere. Hala ere, oso jende gutxi parte hartzen zuela ikusita, nagusiendako lehiaketa hori bertan behera lagatzea erabaki zuten.

ANTZUOLAR BATEN NOBELA

Patxiko Txerren izena jarri zioten ekimen horri, 1890ean argitaratutako liburu baten oroimenez. Antero Apaolazak idatzi zuen nobela hori. Antero 1845. urtean jaio zen; jaiotzez urretxuarra zen arren, antzuolarra zuen ama, eta Antzuolan hil zen 1908an. Madrilen botikari ikasketak

Antero Apaolaza

Patxiko Txerren



— auskalo — eren —

Patxiko Txerren, XVIII. mendeko nobela.

egin zituen, eta Bergaran ireki zuen botika. Zinegotzia ere izan zen Bergarako Udalean; zinegotzi zelarik, baina, gora-behera batzuk izan zituen, eta Antzuolara joan zen bizitzera, eta hemen ere botika bat jarri zuen. Berandu ekin zion literaturari, erretiratu eta gero, hain zuzen ere. Orduan idatzi zuen Patxiko Txerren. Nobela honetan Antzuolako Basalde auzoko familia baten gora-beherak kontatzen ditu Apaolazak. Antzuolako paraje ugari aipatzen ditu nobelan zehar: San Blas, Urkillu, Deskarga...

JAIETARAKO AZALA EGITEKO LEHIAKETARAKO DEIALDIA EGIN DUTE

Antzuolako jaietarako egitarauaren azala lehiaketa bidez aukeratuko du aurtengo udalak. Deialdia egin dute dagoeneko, eta lanak aurkezteko epea zabalik dago ekainaren 1era arte. Baldintza bakarrak honako hauek dira: jai girokoa izan beharko du azalak; Antzuolakoek edota Antzuolan lan egiten dutenek izango dute parte hartzeko aukera; eta, azalean honako testu honek azaldu beharko du: Antzuolako jaixak 2001, uztailak 12-13-14-15. Saria 25.000 pezetakoa izango da.

BALKOI ETA LEIHOETAKO LORE APAINKETA LEHIAKETA

Udaleko Kultura eta Kirol batzordeak herriko balkoi eta leihoetako lore apainketa lehiaketa antolatu du. Seigarren aldian izango da aurtengoa. Lehiaketa honekin lortu nahi dutena zera da: herriguneko ikuspegiaren irudian, etxetik hasita egin genezakeenaren garrantzia kontuan hartu eta bultzatzea. Lehiaketan, barietatea, osaketa eta etxearen kokapena kontuan hartuko dituzte. Bi sari banatuko dituzte ekainaren 23an: alde zaharreko balkoi eta leihoari 15.000 pezeta; eta, alde berriagokoari beste 15.000 pezeta.

KUKUMARRO LEHIAKETA

San Isidro ferriari begira, berriz, Kukumarro lehiaketa antolatu dute udaleko arduradunek. Bertan, nahi duen edonork parte hartu dezake, bakarka zein taldeka. Hiru taldetan banatuko dute lehiaketa hau: 12 urtetik beherakoak, 12 urtetik gorakoak eta erretiratuak. Parte hartu nahi dutenek udaletxean edo liburutegian eman dezakete izena, maiatzaren 10a baino lehen. Erakusketa eta sari banaketa, berriz, maiatzaren 19an egingo dituzte. 12 urtetik beherakoendako, guztiendako egongo da saria, eta beste bi mailetan, 15.000 pezeta irabazleentzat.

zabalo

IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Birgaitzak • Fatxadak
Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89

Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA
609 157 131

BERGARA
609 150 164

**MUJIKA
HARATEGIA**



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren, 1. ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

**LEKU-BERRI
MERENDEROA**

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94

Isidro Zabaleta, Ugarte-Torre baserrikoa

«Goizian mezia egoten zan, eta gero, bertsolarixak; ferixia, berriz, atsaldian»

Maiatzaren 19an ospatuko dute San Isidro eguna Antzuolan. Baina ohiko ganadu feria ezin izango dute egin, ganaduen azkenaldiko osasun arazoak direla eta. Guk, Antzuolako ganaduzale batekin berba egin dugu, Ugarte-Torre baserriko Isidro Zabaletarekin, hain zuzen ere.

Zer iruditzen zaizu San Isidroko ferian ganadurik ez egotea?

Aurten badakizu zer pasatzen dan: naparrixia dala eta ez dala...lehenago kuarentenia izeten zan, baiña oin kuarentenia pasau da eta debekuak aurrera segitzen dau. Dana dala, hemen behintzat naparrixarik ez da zabaldu. Dudia be egon zan, San Isidroko ferixia hilan 29ra atzeratu edo ez, debekua bukatuko zalakuan, baiña ez da holakorik izan eta 19xan egingo da azkenian, ganadu barik. Neurri hori errespetau biharrekua dala pentsatzen jat neri.

Zela bizi du ganaduzale batek behien arazo hori?

Hemen problemia badakizu zelakua dagon: jende dana ganadua kentzen dabil. Ganaduak ez dau ezertarako emoten. Etxe inguruak garbitu eta holakotarako ondo etortzen da, eta, ba, batzuk ganaduekin segitzen dogu. Geu garen bittartian behintzat segiko dau, ta gero, ez dakit ba nik, ikusi egin bihar. Gero, Diputaziñuak-eta be, egixa esan, ez dabe asko laguntzen, lagundu baiño, zaildu egitten doskue gau-



Isidro Zabaletak ganadua eraman izan du feriara.

zak: hor ibiltzen gara, haruntz eta honuntz, papelak dirala eta ez dirala. Sekulako segimentua emoten jaue ganadueri, eta hori ondo ikusten dot, baiña maria-riau egitten gaittue, laguntasun eta

eta hantxe egitten zan ganadu ferixia.

Saldu eta erosi be gehixago egitten zan. Gaiñera, maiatza garai aproposa zan idi zaharrak kendu eta berrixak erosteko. Udabarrizan soruan berriz lanian hasteko idi berrixak erosten ze-ban jendiak, ez urtero, baiña...

Ganadu feriaz gain, besterik egoten al zen?

Bai, herri kirolak be egoten ziran atsaldian: aizkora jokua, idi probak... Oin probalekua kenduta dago, baiña lehen frontoian zeguan. Iralakua eta Egurrabei-kua-ta, ibiltzen ziran idi probetan.

■ ■ ■
«Ni mutikua nitzala, idixekin juten giñan ferixara, zaharrak saldu eta berrixak eroatera»
■ ■ ■



**MUEBLES
IGEA**

Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

LARREA

TABERNA

**Kalebarren 17
ANTZUOLA**

lasonek bederatzirte daroia Urkiola jantzi-dendan lanian. Duela pare bat hilabete, baiña, berak hartu dau dendia. Asko gustatzen ei jako bere lana. Hogeita hamaika urte dauzka lasonek, eta ez konduta dago.

Zure lanian, zer da gehixen gustatzen jatzuna?

Alde batetik, jendiarekin harremanetan egotia; eta bestetik, erropia be asko gustatzen jat.

Eta gutxien?

Ordutegixa ez jat gehixegi gustatzen; batez be, zapatu atsaldetan lan egin biharra.

Aldatzekotan, zertan lan egittia nahiko ziñuke?

Ez dakit, ez dot uste aldatuko neukenik.

Moda jarraituko dozu, ezta?

Bai, ez zehatz-mehatz, baiña jarraitzen dot.

Janzterako orduan, ze estilo gustatzen jatzu?

Informala: praka bakero batzuk, kamiseta bat, jertse bat...

Kolore bat?

Beltza eta berdia.

Usain bat?

Belarra hazten danekua.

Zapore bat?

Gozoa.

Urtaro bat?

Udabarrixa.

Bazkari edo afari ideal bat?

Entsalada arraro edo ezberdin bat, arraia eta ardo on bat.

Denpora librian zer egittia gustatzen jatzu?

Igerixan egittia, mendira juatia...

Beraz, kirolzalia zara...

Ez pentsa, ez naiz oso kirolzalia be...

Iasone Olañeta

Eta ikusteko, gustatzen jatzu?

Bueno, adibidez, patinaje artistikua ikustia gustatzen jat eta baita pelotia be.

Liburu bat?

Stephen Kingenak gustatzen jat.

Musika talde edo abeslari bat?

Benito Lertxundi eta Mike Oldfield be gustatzen jat.

Txikittan zer izatia nahi ziñuan?

Ez dakit, ez naiz gogoratzen.

Zer aldatuko ziñuke zeure bizitzan?

Ezebez, oso gustora nago-ta nagoen moduan.

Zure bertute bat?

Igual puntuala naizela.

Eta defektu bat?

Prontua daukat.

Bestiengan, zer da gehixen apreziatzen dozuna?

Egixa esatia zuzenian, eta ez gero atzetik ibiltzia norbera berde jartzen.

Nahikua diru eduki ezkeru, zer egingo ziñuke?

Lana lagako neuke, eta munduan zihar bidaiatu eta behartsuei lagundu.

Amets bat?

Euskal Herrixan bizi dogun egoeria konpontzia; eta nere bizitzan, momentu honetan, ia negozia ondo juten jaten.



Bolu
liburutegia

Enmarkazioak
Ispiluak neurrira
Zurezko artikulua
Bergarako oleo eta
lumaxoak

Koldo Eleizalde 1, behea
Tf. 943 76 70 60

X Ezkontzak
 X Bataioak
 X Jaunartzeak
 X Enpresa bazkariak eta lagunartekoak
 X 150 lagunendako jangela

PARKINA ETA TERRAZA

BASTER-ALDE

J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABAETA
Tf.: 943 79 24 58

POL-POL
Taberna

943 76 07 78

Bergara Hiria pilota txapelketa hasiko da martitzenean

Nagusien zein promesen mailan zortzina bikote izango dira

Datorren martitzenean, maiatzak 8, Bergara Hiria pilota txapelketaren aurtengo aldia hasiko da. Nagusien eta promesen mailan zortzina bikote izango dira lehian. Bergara Kirol Elkartea ordezkatzuz, Igor Gutierrezek eta Ander Mugaruzak (nagusietan) eta Joseba Herranek (promes mailan) jardungo dute, Euskal Herriko pilotari onenekin batera.

Antolatzaileek aurtengo aldiak izango duen maila bikaina goraiatu zuten astelehenean egindako aurkezpenean. Luis Mari Gutierrez Bergara KEko pilota saileko arduradunaren arabera, «afizionatu mailan Euskal Herrian diren pilotaririk onenen partaidetza lortzen ahalegindu gara, eta maila handiko txapelketa izango dela uste dugu. Txapelketak gero eta izen handiagoa duela uste dugu, eta horri eutsi behar diogu».

Aurten, Bergara Hiria pilota txapelketaren seigarren aldia izango da. Joan den urtean, Amarika-Zapirain (promes mailan) eta Mikel-Albizuri (nagusietan) izan



Argazkian, joan zen urteko txapelketako irabazleak eta finalistak.

genituen txapeldunak. Bikoteen maila ikusita, zaila da faboritoei buruz berba egitea. Hala ere, Larraya-Navarro nafarrak izan daitezke faboritoak nagusien mailan. Promesetan zailagoa da pronostikoren bat egitea. Bergararrei dagokienez, hirurek txapelketa ona egiteko aukera dute: Ander Mugaruzak Peñagarikano azpeitiarrarekin bikotea osatuko du, eta Igor Gutierrez,

berriaz, Castellanos donostiarrarekin arituko da. Bestalde, promesetan, Joseba Herranek Mendizabal zaldibiarrekin jokatuko du.

PARTIDUAK ASTERO

Datorren astetik aurrera, martitzenero partiduak izango dira udal pilotalekuan, 19:30ean. Maiatzaren 8an, partidu hauek jokatuko dira: promesetan, Zabala-Oteiza eta Jaunarena-Escu-

dero bikoteak izango dira aurrez aurre, eta nagusietan, Mikelek eta Casadok Eguzkiza eta Zabalaren aurka jokatuko dute. Txapelketa kanporaketa sistema jarraituta jokatuko da. Finalerdia ekainaren 12an eta finalak ekainaren 26an. Bergara Kirol Elkarteko pilota sailak antolatuta, txapelketak milioi t' erdi pezeta inguruko aurrekontua dauka.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

OILAGORRA TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA



☎ 943 76 20 61

ARRANO



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

Bigarren erregionaleko taldea mailaz igo da

BKEko bigarren erre-gionaleko futbol taldea lehen mailara igo da, liga amaitzeko bi jardunaldi jokatzeke. Igoera ligaxka jokatzeke ozta-ozta sailkatu bazen ere, Karlos Lasaren taldea nagusitasun osoz igo da. Orain arte jokatutako 14 partiduetatik 12 irabazi, beste bat berdindu eta bakarra galdu dute. Azken jardunaldian, bat eta hiru irabazi zuten Behobian. Bergararrak liderrak ditugu, 31 punturakin, eta atzetik Axular (23 puntu), Pasajes (22) eta Antzuola (22) taldeak dira sailkapenean. Bergara gol gehien sartu dituen taldea dugu: 43 gol, hain zuzen ere. Bestalde, 13 besterik ez dizkiote egin igoera aldiko partiduetan.



Argazkian, bigarren erregionaleko lehen multzoko txapelkunak.

ETXEKO AZKEN PARTIDUA
Zapatuan, etxeko azken partidua jokatuko dute mahoneroek, Grosekoren aurka. Bigarren erregionaleko taldea gazte maila gainditu eta hirugarren mailako tal-

dean lekurik ez zuten jokalariei jokatzen jarraitzeko aukera emateko sortu zen. Igotzeaz gain, taldeak bere fruituak eman ditu aurren: bost jokalarik hirugarren mailan debuta egin dute.

Muguruza eta Gutierrez txapelik gabe Antzuolan

Ander Muguruza eta Igor Gutierrez bikoteak 21-22 galdu zuen Aretxabaletako Errasti anaien aurka domeka eguerdian Antzuolan. Deba arroko txapelketako finala zen, nagusien mailan, eta 21-16 aurretik izan arren, bergararrek ezin izan zuten txapela eskuratu. An-

der Muguruzak pilotari onenaren saria jaso zuen partiduen amaieran. Bestalde, gazte mailan, Iker Azagirre bergararrak finala irabazi zuen, Soraluzeko taldea ordezkatzuz. Jauregiarekin batera bikotea osatuz, Eibarko bikoteari 22-16 gailendu zitzaizen.



Muguruza finaleko onena izan zen.

karteldegia

FUTBOLA

Bergara-Almen
Neskak
Zapatua. 12:30. Ipintza
Bergara-Real Sociedad
Ohorezko kadeteak
Zapatua. 15:30. Ipintza
Bergara-Grosek
Bigarren erregionala
Zapatua. 17:15. Agorrosin
Bergara-Ilintxa
Infantilak
Domeka. 11:30. Ipintza

SASKIBALOA

Bergara-Lasale
Kadeteak
Zapatua. 12:15. Kiroldegia
Bergara-Goierri
Seniorrak
Zapatua. 16:00. Kiroldegia

PILOTA

Bergara-Donostia
Herri arteko pilota txapelketa
Egubakoitzean, maiatzak 4,
Udal Pilotalekuan, 19:30ean

Bergara Hiria Txapelketa

Zabala-Oteiza/Jaunarena-Escudero
(promes mailan)
Mikel-Casado/Eguzkiza-Zabala
(nagusiak)
Martitzenean, hilak 8,
Udal Pilotalekuan, 19:30ean

Frontenis txapelketa

Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako frontenis txapelketarako izena ematea maiatzaren 10era arte luzatu da. Txapelketa maiatzaren 12tik aurrera jokatuko da Angiozarren. Argibideak Kirol Zerbitzuan (943 77 91 67).

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala 5 ☎ 943 76 53 09

IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

BEHEKO TABERNA

Menestra eta untxia
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR TEL.: 943 76 55 74



Labegaraietako futbito txapelketa

EMAITZAK

A MULTZOA

Amoskibar-Buya.....	3-0
Irubide-Eri.....	3-6
Fac-Pagomendi.....	6-4

B MULTZOA

Agirrebeña-Aluminios Kresala.....	8-4
Apa Oxemai-Kanpazar.....	3-3
Bayer-Cine Bank Irimo.....	10-3

C MULTZOA

Shaktale-Mongatxurrak.....	1-14
Artusamak-A Ze Flaxa.....	5-9

KOPA KANPORAKETAK

Bar Ugarte-Guadalest.....	3-3
Patxaran Team-Aterpe.....	3-0
Bildurbarek-Amilotx.....	10-1
Amoskibar-Agirrebeña.....	5-3
Etengabe-Shaktale.....	3-0
Bayer-Canalejas.....	7-4
K.Piperrak-Al. Kresala.....	1-5
Ortzi-Buya.....	3-0
Torrekua-Cine Bank Irimo.....	0-3
Mongatxurak-Vacalouras.....	7-4

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

10:30: Artusamak-Bayer.....	Bar Ugarte
11:30: Bar Ugarte-Komando Piperrak.....	Artusamak
17:30: Ortzi-Errotagain.....	A Ze Flaxa
18:30: A Ze Flaxa-Amilotx.....	Pagomendi
19:30: Pagomendi-Bildurbarek.....	Amilotx

DOMEKAN, BARRUAN

9:30: Ortzi-Txipiron.....	Errotagain
10:30: Errotagain-Mongatxurrak.....	Etengabe
11:30: Cine Bank Irimo-Etengabe.....	Al. Kresala
12:30: Aluminios Kresala-Canalejas.....	Cine Bank
16:00: Kanpazar Harrobia-Guadalest.....	Bayer
17:00: Bayer-Amoskibar.....	Fac
18:00: Fac-Patxaran Team.....	Bildurbarek
19:00: Bildurbarek-Eri.....	Patxaran T.

ARGI!

Torrekua eta Buya kanporatuta

Torrekua taldeari galdutzat eman diote Cine Bank Irimo taldearen kontrako kanporaketa, fitxarik gabeko jokalariekin jokatzeagatik. Buya ere kanporatu dute Amoskibarren kontrako partidura ez aurkezteagatik.

Penaltiak berdinketa izaten denean

Liga zein kopako hemendik aurrerako kanporaketetan partidua berdinketarekin amaituz gero, talde bakoitzak hiru penalti jaurti beharko ditu irabazlea zein den erabakitzeko.

Aterpe taldea

B multzoan hainbat jardunalditan buruan izan den Aterpe taldea kanporatu dute azken partidura ez aurkezteagatik. Beraz, ez da ligako play-offetan ezta kopa txapelketan izango.

Play-offetarako sailkatutakoak

Liga amaitu da eta multzo bakoitzeko bost lehenek eta Bar Canalejas taldeak (seigarren onena) jokatuko dituzte ligako play-offak hemendik aurrera.



GORA eta BEHERA



SAILKAPENA

A multzoa

	P	J
1. Bar Ugarte	54	22
2. Errotagain	52	22
3. Bildurbarek Opel Lam	43	22
4. Amoskibar	39	22
5. Pagomendi	34	22
6. Bar Canalejas	32	22
7. Fac	27	22
8. Eri	22	22
9. Irubide jatetxea	18	22
10. Torrekua	7	22
11. Apa Oxemai	4	22

B multzoa

	P	J
1. Ortzi	42	19
2. Kanpazar Harrobia	41	19
3. Bayer	32	19
4. Amilotx	31	19
5. Aluminios Kresala	30	19
6. Agirrebeña jatetxea	18	19
7. Vacalouras	15	19
8. Cine Bank Irimo	11	19
9. Etengabe	4	19
-	-	-
-	-	-

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa	39	17
2. Artusamak	37	17
3. Mongatxurak	36	17
4. Guadalest	27	17
5. Komando Piperrak	25	17
6. Shaktale	17	17
7. Txipiron	16	17
8. Patxaran Team	8	17
-	-	-
-	-	-
-	-	-

Informazio hau, ondorengo babesleei esker:

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 943 76 53 12



OGIZUN

koop. elk. okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13

Otsein Saria

Sailkapen orokorra:

Arkaitz Arana.....	13 puntu
Ander Berraondo.....	11 puntu
Joseito Lizarralde.....	11 puntu
Aritz Labiourrutia.....	10 puntu

Etexko partidua bakarrik hartzen ditugu kontuan.



ECUADOR
BIDAIK

BERGARA

jaietan Salourara

SALOU 2001

Ekainaren 1etik 5era

Hotel Los Angeles	20.000
Hotel San Diego	20.000
Hotel San Francisco	20.800
Hotel Jaime I	21.275
Hotel Mediterraneo	22.000
Hotel Belvedere	22.600
Hotel Olimos II	23.500
Hotel Las Vegas	24.500
Hotel Augustus	24.800
Hotel Europa Park	25.000
Hotel Blaumar	33.100

Luxuzko autopulmana eta mantenu osoa prezioan sartuta daude

Kontsulta itzazu beste hotel batzuetako egonaldien prezioak eta...

UMEENTZAKO ETA HIRUGARREN ETA LAUGARREN LAGUNENTZAKO DESKONTUAK!


Informazioa eta erreserbak Ecuador Bidaiak-en.

Tf. 943 76 44 45 - 943 76 15 33

Arruriaga, 10. BERGARA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

bonofotoa

Oraindik geratzen diren arrastoek agerian uzten duten moduan, zertarako erabili ohi zuten garai batean erreka kontrako txoko hau?

galde debalde

1. Zein izen dauka Abiadura Handiko Trenaren aurka sortu berri den taldeak?


- A- AHTa Gelditu! Elkarlanean
- B- Angiozar SOS
- C- AHT Stop!

2. Zein da BKEko bigarren erregionaleko futbol entrena-tzailea?

- A- Karlos Lasa
- B- Juanina Garai
- C- Jose Luis Beitia

3. Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zein obra joko du Udal Bandak Zallan?

- A- Entre Azahares
- B- Ross Roy
- C- Ezpatadantza



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria **Maite Aranzabalentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Maite! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Labegaraieta eta Iparragirre kalea** Galde Debalde: **1-C, 2-B, 3-A**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: 2: 3:

Izen-deiturak:

Telefonoa:

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Koipesol
ekilore olio, litroa

132 PTA!

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

Udal Musika Banda Zallan egingo duten banda erakusketara gonbidatu dute

Probintzia bakoitzeko banda batek jaso du gonbita; Gipuzkoatik, Bergarakoak

Euskal Herriko probintzia bakoitzeko banda bat gonbidatu dute Zallako banden erakusketara. Erakusketa hori, Euskal Herriko Banden lehiaketaren 10. urteurrena ospatzeko egingo dute.

Begarako Udal Musika Bandak Zallan egingo duten banden erakusketan hartuko du parte, domekan, hilaren 6an.

Aurten hamar urte bete dira Zallan Euskal Herriko Banden lehiaketa egiten dutela. Urteurrena ospatzeko, ia bi hilabete zehar, domekeroko, Euskal Herriko probintzia bakoitzeko banda bat gonbidatu dute kontzertua eskaintzera. Gipuz-



Orotariko sei obra eskainiko ditu bandak Zallako banden erakusketan.

koa osotik, Bergarako Udal Musika Bandak jaso du erakusketan parte hartzeko gonbita. Hori horrela izanik, oso pozik azaldu da Alfredo Gonzalez Chirlaque, Banda-ko zuzendaria, Gipuzkoa

osotik eurak aukeratu dituztelako Zallako banden erakusketan parte hartzeko. Gauzak horrela, domeka honetan izango da Bergarako Udal Musika Bandaren txanda.

Egitarauari dagokionez, orotarikoak izango da, entzuteko erraza, antolatzaileek hala eskatuta, eta sei obra eskainiko dituzte bergararek: 'Entre Azahares', Alfredo Gz. Chirlaqueren pasodoblea, 'Ross Roy', J. de Haan-en obertura, Miguel Gz. Bastidaren 'Ezpatadantza', 'Diagram', A. Waignein-en obra garaikidea, 'Ballei Parisien', J. Offenbach-en suitea, eta propina gisa, 'El ultimo mohicano'.

MUTRIKUKO BANDAREN KONTZERTUA

Bandekin jarraituz, Mutriko Bandak kontzertua eskainiko du domekan, hilaren 6an, Udal Pilotalekuan. Emanaldia 12:30ean izango da.

Easo abesbatzaren kontzertua, bihar, zapatua, San Pedron

Easo abesbatzaren Ganbera Abesbatza Mistoak kontzertua eskainiko du, bihar, zapatua, 20:00etan, San Pedro parrokian. Easo abesbatzak 1994. urtean sortu zuen aipatutako ganbera abesbatza: Escolaniako umez eta Gizon Koroko partaidez osatuta dago.

Sortu zenetik hainbat

emanalditan hartu du parte: besteak beste, iaz Donostiako Jazzaldian, Gabonetan Euskal Telebistak eskainitako kontzertuan. Hainbat operatan ere aritu da: 'Carmen' operan Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin, eta 'La Bohemen' Sevillako Orkestrarekin, beste batzuren artean.

Aurten, "Paris Opus 111-Naivè" diskoetxearekin, Notre Dame (XIII. mendea) Ella Pueri Eskolaren musikari buruzko diskoa kalera-tuko du.

EGITARAUA

Bihar San Pedron eskainiko duten kontzertuko obra guztiak Aita Donostiarenak

dira. Lehenengoa, 'Dulce Lignum' organoarendako obra da. Bigarrena, 'Misa Pro Defunctis' koro eta organoak elkarrekin eskainiko dute. Hirugarrena, 'In Paradisum' organoak eskainiko du. Zuzendari lanetan Xalbador Rallo arituko da, eta Oscar Candendo organoan.

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

LONBIDE

OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5
BERGARA

☎ 943 76 10 57





Bergarako errepublikarrak, 1930

J oan zen apirilaren 14an 70 urte bete ziren Eibarren Bigarren Errepublikaldarrikatu zenetik. Oraingo asteko erretratu zaharrean Bergarako errepublikar talde bat ageri da. Antza denez, bertan agertzen direnak Casino Republicano-noko bazkideak ziren. Argazkia 1930 edo 1931koa da eta Yesako pantanora egindako irteera batean aterata dago. Dena den, Josuren Murgizu argazkiaren inguruko infor-

mazioa jasotzen ari da, eta norbaitek zehaztasun gehiago izanez gero, Josuren berari deitu diezaioke, 943 76 30 33 telefono zenbakira hain zuzen. Hauek dira argazkian agertzen diren errepublikarrek.

Goian: Arruabarrena "Tacones", Felipe Ezenarro, ezezaguna, Jose Mari Garikano, Rosario Bakaikoa, Jose Kalboetxeaga "Pako Basarri", Juan Bakaikoa eta Evaristo Mazorriaga.

Erdiko ilaran (jarrita): Pedro Diez, Ignacio Muruamendiaraz, Pedro Manzanedo, Moreno eta Bittoriano Telleriarte (betaurrekoduna).

Behean: Juanito Sanchez, Ortiz, ezezaguna, Aurelia Ibarrola, ezezaguna, Florentina, ezezaguna, Maria izenekoa bat, Ramon Farras, Renteri, Noarbe eta Telleriarte (azken laurak zutik).

Argazkia: Josuren Murgizu

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldeko erreforma, pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59



Zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!


San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



Manufacturas LARRAÑAGA

- Lan-babeserako artikulua
- Seinaleztapena
- Lanerako jantziak

Leizeaga 1.
Tf. / faxa 943 76 59 53.



BILTOKI

ASPIZA S.L.

Elektrikako tresnak	Barrenkalea, 6	Tel.: 943 76 25 96
Opariak	Barrenkalea, 12	Tel.: 943 76 04 72
Dekorazioa	San Martin plaza	Tel.: 943 76 43 51
Sukaldeak eta bainuak	San Pedro plaza	Tel.: 943 76 34 00

1955. urtean sortua 46 urte herriaren zerbitzura

URRATS

TABERNA

KOKTEL BEREZIAK GAUETAN

Ibargarai 4
943 76 52 92



Ibarretxe da baietza



EMAN BOTOA
EUZKO ABERTZALEAK



ETXE MOBEL
MUEBLES ALTZARIAN

Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE




RKUZ
ALTZARIAN

Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



RKUZ
ELEKTRAGAILUAK

Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert 

RKUZ
SUHARDE INTEGRALA

Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

FAGOR 

50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik